

JARDUKETA IZENA Berako zentral zaharreko presa eraistea (c7)

Zer KBETan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun

Bidasoa Ibaia KBE

LOTURA NATURA 2000REKIN

Ekintza KBEa Kudeatzeko Planaren helburu operatibo hauen baitan kokatua dago:

- Helburu Operatiboa. Ibai Sistema kudeaketarako funtsezko elementuaren ur korridorean dauden oztopoak iragazkortzea.
- 1.2.1. Helburu Operatiboa. Ibai Sistema kudeaketarako funtsezko elementuaren ur ibilietako ur emarien erregimena hobetzea.
 - 1.7. Neurria: Jarraipena ematea Nafarroako Gobernua Bidasoaren arroan gauzatzen ari den neurriei presak iragazkortzeko eta eraisteko.
- 5.1.2. Helburu Operatiboa. Izokin arruntaren, kolakaren, itsas lanproiaren eta burtainaren habitataren baldintzak hobetzea.

KBEko funtsezko elementu onuradunak

Hona hemen KBEko funtsezko zer elementuk jaso duten onura: "Ibai-sistema", "Ibai-habitatak", "Izokin arrunta, kolaka, itsas lanproia eta burtaina", "Bisoi europarra eta igaraba arrunta" eta "Muturluze piriniotarra".

JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:

Bera eta Lesaka.

Data aurreikusia

2017

Aurrekontua

181.000 €

Proiektuaren ekintza loturikoak

Jarraipen geomorfologikoa egitea, eta halaber, arrain-espezieen eta ugaztun urtarren jarraipena egitea

Lanaren deskribapena - HELBURUAK

Lanaren helburua da "Berako zentraleko presa edo San Martin presa" izenekoa eraistea, ibaiaren konektibitatea hobetzea, espezieen mugikortasuna hobetzea, eta tarte horretan, uholde arriskua murriztea.

Lanaren deskribapena - AURREKARIAK

Bidasoa Ibaia erratan zaion naturgunea Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) da, bere natur balioei esker; balioen artean arrain komunitatea eta habitat naturalak dira nabarmentzekoak, Nafarroako dibertsitate biologikoaren flora eta faunaren adierazgarri. Hala ere, oztopo sorta batek fauna urtarraren mugimenduak zaildu edo eragozten ditu KBEan, eta horrek eragin handiagoa edo txikiagoa du, espeziearen arabera eta urte hidrologikoaren unearen arabera.

Bidasoaren ardatzean itsasotik migratzen duten arrain-espezieak dauden hirugarren presa da Bidasoaren ardatz nagusian. Berako Zentraleko presa txikiak ur geldia sortu du 1.500 metroan, eta horrek ibilguaren ezaugarriak aldatu ditu; hau da, Horrela, desagertu dira urlasterrak, osinak eta taulak, guztiak ere egokiak KBEko fauna espezie gehienentzat.

EFA221/11-GURATRANS Proiektuaren baitan, eta POCTEFAk finantzaturik, 2014ko apirilean prestatu zen ekintza honetarako aurreikusi diren lan guztiak biltzen dituen proiektua.

Oztopo hori, gainera, eragozpena da Bidasoa ibaiaren "egoera ekologiko ona" lortzeko, presak ibilguaren egitura eta substratua aldatzen dituelako, eta

ibai konektibitatea okerragotu. Halaber, ibaiertzak eta prozesu natural oso nabarmenak aldatzen ditu, hala nola sedimentuen zirkulazioa eta mantenugaiak harrapatzea.

Lanaren deskribapena - HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA (C ekintzak)

San Martin presa, lehenago, energia elektrikoa sortzeko erabiltzen zen. Konfederazio Hidrografikoaren emakida 1910ekoa da. Gaur egun, ez da erabiltzen. Laburbilduz, lanak nagusiki bi zati ditu.

Berako zentraleko presa guztia eta hari erantsitako elementuak kentzea:

Presa harri-hormaz egina da, 2,86 m da gehienez garaieran, eta ibaiertzetik ibaiertzera 102,84 m da luzeran. Formari dagokionez, sekzio trapezoidala du, 3,86 metroko oinarria, eta gailurraren zabalera 0,45 m da. Presaren erdigunean badira jauzia mailakatzen duten harriak, eta oztopoa zati batean iragazkortzen dutenak. Presan ez dago berez arrainak igarotzeko pasabiderik.

Ubidea materialez betetzea

Errotatik abiatuta, ura hartzeko ubidea doa; 728 m inguru da luzeran, 3,75 m zabalera, eta 2,75 m garaieran. Ubidea mendi barnean sartu, eta Zentral zaharraren inguruan ateratzen da. Ubidea metalezko habeen bidez dago luzera osoan habetua; habetik habera, tarte zehatz bat dago. 40 cm-ko lodiera du eta hormigoi armatuzkoa da. Ubidearen zati bat betetzeko, presa eraisteko lanetan eginen diren lur mugimenduetako material soberakinak erabiliko dira.

JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? - ESPERO DIREN EMAITZAK

- Ibai Konektibitatea adierazlearen balio hau lortzea: “**Oso ona**. Oztoporik ez”. 3,5 km lortuko dira ibaian oztoporik gabe, Bidasoaren behe tartean, Nafarroan.
- Halaber, presak bildutako ur eremua ezabatuko litzateke; eremu horrek 1.500 m ditu luzeran. Horrela, ibai-habitat naturalagoa eta dibertsifikatuagoa sortuko litzateke, ur bilduko eremua ezabatuz, eta horrek urlasterrak, osinak eta taulak eragingen litzuzke elkarren jarraian.



